



Paul Henri Capdevielle  
Bermeo Basatia

Itzulpena oso ondo dago eta gainera Bermeoko hitz eta argot ugari ere jasotzen ditu. Baina nobela, berez, gehiegizkoa da, egiazko euskaldunekin guztiz bat ez datorren errealitate bat islatzen du. Duela 80 urte edo, Bermeoko portuari eta herriari buruzko deskribapen fisiko polit asko ditu, baina pertsonaiak, fisikoak ez diren deskribapenak, gehiegi idealizatu edo “esternalizatu” ez oten diren susmoa dut, edo besterik gabe, gure herriaren gaineko atzerritar-begirada bat da. Egileari buruzko oso informazio gutxi lortu ahal izan dut Interneten; hala ere, garbi dago Paul Henry Capdevielle-k mihasmena sentitzen zuela gure herriarekiko eta kostaldeko jendearekiko (edo, oportunistoz jokatu ote zuen, Bermeoko itsas tragedia hark Europa osoan izan zuen oihartzuna aprobetxatu nahirik...?). Baina nobelaren egituraketa sinpleegia da, zaharkitua da (baita garai hartarako ere), elizkoia ere bada (behintzat, pertsonaien erlijiosotasuna nabarmen azpimarratzen du, suhartasunez). Nik liburu hau erdaraz ez nukeen irakurriko. Euskaraz bai, itzulpenarengatik, hizkuntzaren estetikagatik beragatik. Baina ikuspuntu intelektual batetik, irakurketa ez da oso interesgarria gertatzen.